2001

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA — DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

nº 8

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## Azoka eta Kongresuen sektorea Euskadin

## El sector de Ferias y Congresos en el País Vasco

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.

# Azoka eta bileren inguruko turismoa: gora doan jarduera

# El turismo ferial y de reuniones: una actividad emergente

Oporretako turismoarekin kontrajarriz, negozioen turismoa, edo bileren sektorea, edo azoka eta kongresuen sektorea izenekoak, jarduera profesionalek sortutako fluxuak aipatzen ditu.

Spain Convention Bureau (SCB), kongresu eta konbentzioak antolatzen dituzten estatuko 30 hiri baino gehiago biltzen dituen elkartearen arabera, jarduera hau izendatzeko modu diferenteak dauden arren, bilerak hiru mailatan sailkatzen dira:

- **Kongresua:** Normalean Elkarte, sozietate, elkargo profesional, federazio, unibertsitate eta abarrek sustatutako pertsonen arteko bilera da; 2 eguneko iraupena du, bertan gau bat emango dute eta gutxienez 50 lagunek hartuko dute parte.
- **Konbentzioa:** Normalean enpresa pribatu batek sustatutako pertsonen arteko bilera da; gehienetan salmenta-indar, berezko banatzaile, komertzial eta abarri zuzenduta dago; 2 eguneko iraupena du, gau bat emango dute eta bertan gutxienez 50 lagunek hartuko dute parte.
- **Jardunaldia, mintegia, sinposioa:** aurrekoetatik kanpo dagoelako, atal honen barne, kongresu edo konbentzioen barne sartzen ez den bilera dago. Egun bateko iraupena izan dezake, baina beti gutxienez 50 lagunek hartuko dute parte.

Azaleratzen ari den jarduera bezala kalifikatutako segmentua da; azken urte hauetan goranzko eboluzioa izaten ari da bilera- eta partaide-kopuruei dagokienean, era honetako topaketak antolatzeko herrialdeen artean Espainia lehen postuan ipiniz.

*En contraposición al turismo vacacional, el denominado turismo de negocios o sector de reuniones o de ferias y congresos, alude a los flujos generados por las actividades profesionales.*

*A pesar de las diferentes denominaciones existentes para referirse a esta actividad, según el Spain Convention Bureau (SCB), asociación que aglutina a más de 30 ciudades españolas organizadoras de congresos y convenciones, las reuniones se clasifican en tres categorías:*

- ***Congreso:** reunión de personas promovida normalmente por una Asociación, sociedad, Colegio Profesional, Federación, Universidad, etc. de 2 días de duración, una pernoctación y 50 participantes como mínimo.*
- ***Convención:** reunión de personas promovida normalmente por una empresa privada, generalmente dirigida a fuerzas de venta, distribuidores propios, comerciales, etc. de 2 días de duración, una pernoctación y 50 participantes como mínimo.*
- ***Jornada, seminario, simposio:** por exclusión de lo anterior, normalmente se incluye en este apartado la reunión que no puede considerarse congreso ni convención. Puede ser de un día, pero siempre con una participación mínima de 50 personas.*

*Se trata de un segmento de actividad calificado como emergente y que en estos últimos años está experimentado una evolución al alza en cuanto al número de reuniones y participantes, que ha situado a España como país destacado en el ranking de países organizadores de este tipo de encuentros.*



*Azoka-barrutietan azken bost urtetan egindako bileren kopuruaren %173ko gehikuntzak eta erakusketa-azalera garbiaren %66ko gehikuntzak, sektoreak Estatuan bizi duen goren unea erakusten dute.*

*Incremento del 173% en el número de reuniones celebradas en el último quinquenio y del 66% en la superficie expositiva neta de los recintos feriales ilustran el auge del sector en el Estado.*

## Sektorearen eboluzio berria estatuan

## Evolución reciente del sector en el contexto estatal

1996-2000 artean, Estatuan eta Spain Convention Bureauren arabera:

- Egindako bileren kopuruaren %173ko gehikuntza (3.695etik 10.073ra)
- Bertaratutako ordezkarien artean %91ko gehikuntza (982.954tik 1.874.841ra)
- 2000. urtean 225.000 milioi pezetako negozio-kopurua sortu zen, 1999koa baino %7,6 handiagoa.
- Jarduera honen ondoriozko sarrerek harrera-hirietan turismoak eragindako sarrera guztien %25 suposatzen dute.

Azoka-jarduerari dagokionean, arlo hau ere gorantz doa. Azoka Espainiarren Elkartea –AFE- osatzen duten 31 kideei buruz elkarteak berak adierazitako datuak ikusita esan dezakegu 1996-2000 urteen artean:

- 251 erakusketa antolatzetik 381 antolatzera pasatu direla (Δ %52).
- Erakusketarako azalera garbian %66ko gehikuntza (2,14 milioi m2tik 3,56ra)
- Erakusketari zuzenen kopuruan %56ko gehikuntza (38.142 erakusketari zuzenetatik 59.570era)
- 45.000 milioiko fakturazio balioztatua, hots, aurreko ekitaldiarekiko %10eko gehikuntza.

*Entre 1996-2000, en el Estado y según el Spain Convention Bureau:*

- *Incremento del 173% del número de reuniones celebradas (de 3.695 a 10.073)*
- *Incremento del 91% de los delegados asistentes (de 982.954 a 1.874.841)*
- *225.000 millones de ptas. cifra de negocio generada en el año 2000, 7,6% superior a la de 1999*
- *Los ingresos por esta actividad representan en las ciudades de acogida, aproximadamente el 25% de los ingresos totales por turismo.*

*En cuanto a la actividad ferial, ésta se encuentra igualmente en una coyuntura ascendente. Según datos de la Asociación de Ferias Españolas -AFE- relativos a los 31 miembros de la misma, entre 1996-2000:*

- *Se ha pasado de organizar 251 salones a 381 (Δ 52%).*
- *Incremento del 66% en la superficie neta expositiva (de 2,14 millones de m2 a 3,56)*
- *Incremento del 56% en el número de expositores directos (de 38.142 expositores directos a 59.570*
- *45.000 millones de facturación estimada que representan un incremento del 10% respecto al ejercicio anterior.*

**Kongresuen antolakuntzarekin lotutako jarduera osagarria**

**Actividades auxiliares asociadas a la organización de congresos**

| | |
|---|---|
| • Trebakuntza eta ikuskaritzako bidaien antolakuntza | *Organización de viajes de inspección y familiarización* |
| • Komunikazioa eta publizitatea | *Comunicación y publicidad* |
| • Partaideen agenda eta bidaien antolakuntza | *Organización de viajes y agenda de los participantes* |
| • Ordezkariei, bertaratzea eta baimenak kudeatzen | *Gestión de permisos y asistencia a delegados* |
| • Laguntzaile eta gidarien zerbitzuak | *Servicios de guías y acompañantes* |
| • Autobusak eta ibilgailuen alokatzea | *Autocares y alquiler de vehículos* |
| • Inprimatze- eta argitalpen-zerbitzuak | *Servicios de impresión y publicación* |
| • Standen muntatzea eta produkzioa | *Producción y montaje de stands* |
| • Ikus-entzunezko zerbitzuak | *Servicios audiovisuales* |
| • Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak | *Servicios de traducción e interpretación* |
| • Catering- eta bankete-zerbitzuak | *Servicios de catering y de banquetes* |
| • Azafatak | *Azafatas* |
| • Txostenen transkripzioa | *Transcripción de ponencias* |
| • Segurtasun-zerbitzuak | *Servicios de seguridad* |
| • Aisia eta ikuskizunetako jarduerak | *Actividades de ocio y espectáculos* |
| • Eta abar. | *Etc.* |

**Iturria** / ***Fuente***: Spain Convention Bureau (FEMP). Hiri Atxikien instalazioak. 2001 / *Spain Convention Bureau (FEMP). Instalaciones de Ciudades Adheridas. 2001*

*Euskal Herrian 2000. urtean, kongresu eta konbentzioetara bertaratutakoen eta BNEren bisitari profesionalen gastu zuzenak 10.500 milioi pezeta baino gehiago izan daitezke.*

*En el País Vasco, el gasto directo de los asistentes a congresos y convenciones más el de los visitantes profesionales de la FIB podría superar en el año 2000 los 10.500 millones de pesetas.*

## Sektorearen inpaktu ekonomikora hurbilketa

## Aproximación al impacto económico del sector vasco

2000. urtean, SCBren arabera, kongresu, konbentzio eta jardunaldietan partaideen egun eta ordezkari bakoitzeko batez besteko gastua 45.624,761[1] ekoa izan da. 200.000 eta 500.000 biztanle bitarteko hirietan 44.168,67 pezetakoa, honela banatuta:

- %31 ostatu-gastuak
- %25 izena emateko kuota
- %19 elikadura
- %18 erosketak eta aisia
- %7 barne-garraioa eta bestelakoak

44.168,67 pezetak, 2000n hiru euskal hiriburuetako[2] Convention Bureau-ek zenbatuta kongresu eta konbentzioetara bertaratutako 68.527 lagunekin biderkatuz gero, eta ekitaldiek batez beste 2,4[3] egun irauten dutela suposatuta, Euskal Herrian bileren sektorearen inpaktu ekonomiko zuzena 7.300 milioi pezeta ingurukoa izango litzateke; kopuru hori, jardunaldi eta mintegietara bertaratutakoen 585.000 milioiak gehituta, guztira 7.885.000 milioi pezeta izango lirateke.

Bestalde, 1998an[4] egindako inkesta baten arabera, negozio-arrazoiengatik (eta ez kongresuarekin bakarrik lotuta) Euskadira bertaratzen diren profesionalek egunero batez beste 23.709 pezeta gastatu zituzten. Kopuru hori 2000ra eguneratuta, 24.610 pezeta ematen dute, horietatik %48,5 ostatuari[5] dagokie.

Gaua bertan ematen duten BNEren bisitari eta erakusketariei aplikatuz gero, 1.552 milioi pezeta suposatzen du, ondoko kalkulu honen arabera:[6]

a) 19.100 bisitari profesional, 1,8 eguneko egonaldia, eta egun bakoitza 24.610 pezetagatik.
b) Enpresa erakusketaritako 4.100 lagun, 7 eguneko egonaldia, eta egun bakoitza 24.610 pezetagatik.

*En 2000, según el SCB, el gasto medio por delegado y día de los participantes en congresos, convenciones y jornadas es de 45.624,76[1]. En ciudades entre 200.000 y 500.000 habitantes es de 44.168,67 ptas. distribuidas en:*

- *31% gastos de alojamiento*
- *25% cuota de inscripción*
- *19% alimentación*
- *18% compras y ocio*
- *7% transporte interno y otros*

*Multiplicando las 44.168,67 ptas. por los 68.527 asistentes a congresos y convenciones contabilizados por los Convention Bureau de las tres capitales vascas[2] en 2000, y suponiendo una duración media de los eventos de 2,4[3] días, el impacto económico directo del sector de reuniones en el País Vasco rondaría los 7.300 millones de pesetas, sumados 585.000 de los asistentes a jornadas y seminarios da un total de 7.885.000*

*Por otro lado, según una encuesta realizada en 1998[4], los profesionales que vienen a Euskadi por motivos de negocios (y no estrictamente congresuales) hicieron un gasto medio diario de 23.709 ptas. que, actualizadas al 2000, se convierten en 24.610 ptas. de las cuales el 48,5% corresponden al alojamiento[5].*

*Aplicándola a los visitantes y expositores de la FIB que se estima pernoctan supone 1.552 millones de ptas. según el siguiente cálculo:[6]*

*a) 19.100 visitantes profesionales por 1,8 días de estancia por 24.610 ptas.*
*b) 4.100 personas de empresas expositoras por 7 días de estancia por 24.610 ptas.*

---

[1] Estatu osorako kopurua 225.310 milioi pezetakoa da / *Para el conjunto del Estado la cifra es de 225.310 millones de ptas.*

[2] Araban egindako kongresu eta konbentziotara, ordezkari guztien gainean bilera-mota honetako ordezkariak ordezkatzen dituzten estatu-mailako portzentajeen arabera kalkulatu da: ordezkarien %31,13 kongresutara bertaratzen dira eta %29,54 konbentziotara / *Los asistentes a congresos y convenciones celebradas en Alava se han estimado según los porcentajes estatales que representan los delegados de este tipo de reunión sobre el total de delegados: 31,13% de delegados asisten a congresos y 29,54% a convenciones.*

[3] SCBren arabera, ikuskizunen batez besteko iraupena 200.000 eta 500.000 biztanle bitarteko hirietan. / *Según el SCB, duración media de los eventos en ciudades entre 200.000 y 500.000 habitantes.*

[4] Eusko Jaurlaritza, Turismo Sailordetza, Euskal Turismoaren Txostena 2. zk., Negozio-bidaiak. 1999. / *Gobierno Vasco, Viceconsejería de Turismo, Informe del Turismo Vasco nº 2, Viajes de negocios. 1999.*

[5] Ostatu hartzeagatik 12.000 pezeta, azoka- eta kongresu-garaietan euskal hiriburuetako lau eta bost izarretako hoteletan indarreko tarifak baino askoz ere kopuru baxuagoa. / *12.000 ptas. por el alojamiento resulta una cantidad inferior a las tarifas vigentes en los hoteles de cuatro y cinco estrellas de las capitales vascas en temporada de ferias y congresos, por lo que la cifra final del gasto medio diario puede resultar inferior a la real.*

[6] Ikus gaua ematen duten bisitariak eta erakusketariak balioztatzeko eskaera-atala / *Ver apartado de demanda para la estimación de visitantes y expositores que pernoctan*

**Bileren merkatuaren eboluzioa. 1998-2000**

**Evolución del mercado de reuniones. 1998-2000**

| | 1998 | | 1999 | | 2000 | | %1998/2000 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bilerak / *Reuniones* | Bertaratuak / *Asistentes* | Bilerak / *Reuniones* | Bertaratuak / *Asistentes* | Bilerak / *Reuniones* | Bertaratuak / *Asistentes* | Bilerak / *Reuniones* | Bertaratuak / *Asistentes* |
| Araba | 45 | 10.625 | 66 | 8.950 | 103 | 15.500 | 128,9 | 45,9 |
| Bizkaia | 268 | 36.412 | 243 | 42.909 | 280 | 52.470 | 4,5 | 44,1 |
| Gipuzkoa | 38 | 8.245 | 38 | 11.337 | 68 | 19.487 | 78,9 | 136,3 |
| Euskadi Guztira / *Total Euskadi* | 351 | 55.282 | 347 | 63.196 | 451 | 87.457 | 28,5 | 58,2 |
| Estatua / *Estado* | 6.497 | 1.568.112 | 8.655 | 1.789.634 | 10.073 | 1.874.841 | 55,0 | 19,6 |
| Kuota Euskadi (%) / *Cuota Euskadi (%)* | 5,4 | 3,5 | 4,0 | 3,5 | 4,5 | 4,7 | - | - |

Iturria / *Fuente*: Spain Convention Bureau (FEMP). Hiri Atxikien instalazioak. 2001 / *Spain Convention Bureau (FEMP). Instalaciones de Ciudades Adheridas. 2001*

*Azoka eta bileren sektorearen inpaktu ekonomikoa guztira 22.000 eta 25.000 milioi pezeta artekoa dela kalkula daiteke.*

*El impacto económico total del sector de ferias y reuniones se puede estimar entre los 22.000 y 25.000 millones de pesetas.*

Ostatu hartzeak suposatzen duena (%48,5) kenduta, eguneroko batez besteko gastua 12.797 pezeta arte murrizten da. Kopuru horrek, bertan lo egitera geratzen ez diren bisitari eta erakusketariei erantsiz gero, 1.092 milioiko gastua suposatzen du:

a) 69.769 bisitari egun bakoitzeko, 12.797 pezetagatik
b) 2.216 erakusketari 7 eguneko, 12.797 pezetagatik

Ondorioz, BNEko bisitari eta erakusketarien gastua guztira 2.644 milioi pezetatan kalkulatu da.

BNErako kalkulatutako gastu-kopuru hau (2.644 milioi) kongresu eta konbentzioetako ordezkarienei gehituta, (7.300 milioi) azoka- eta bilera-sektoreak, bisitarietan bakarrik, 9.944 milioi pezetako gastua balioztatuko luke.

Kopuru hori nahiko zuhurra da, izan ere AFEren kalkuluen arabera, azoka-sektoreak Espainian duen eraginak zortzi eta hamabi bider artean biderkatzen du azoka-barrutiek zuzenean fakturatutako bolumena. 2000. urtean Bilboko Nazioarteko Erakustazokak egindako salmentak (1.774,4 milioi pezeta), 14.200 eta 17.744 milioi pezeta arteko kopurua emango luke. Kopuru horri bileren sektorearen bolumen globala erantsi beharko litzaioke. Bolumena, ikusi dugun bezala, bisitarien gastuei dagokienean bakarrik, 7.885 milioi pezetakoa da, hau da, guztira 22.000 eta 25.000 milioi pezeta artekoa.

*Restando lo que supone el alojamiento (48,5%), el gasto medio diario se reduce a 12.797 ptas. Aplicando esta cantidad a los visitantes y expositores que no pernoctan supone un gasto de 1.092 millones:*

*a) 69.769 visitantes por 1 día por 12.797 ptas.*
*b) 2.216 expositores por 7 días por 12.797 ptas.*

*En consecuencia la cifra total de gasto para los visitantes y expositores de la FIB se estima en 2.644 millones.*

*Sumando esta cifra de gasto estimada para la FIB (2.644 millones) a la de los delegados de congresos y convenciones (7.300 millones) resulta que el sector ferial y de reuniones habría generado un gasto estimado, solo en visitantes, de 9.944 millones de pesetas.*

*Esta cantidad resulta mas bien prudente ya que según estimaciones de la AFE, el impacto del sector ferial en España multiplica entre ocho y doce veces el volumen directamente facturado por los propios recintos feriales. Aplicado a las ventas realizadas en 2000 por la Feria Internacional de Bilbao (1.774,4 millones de ptas.) daría una cifra de entre 14.200 millones y 17.744 millones, cantidad en la que habría que añadir el volumen global del sector de reuniones, que como hemos visto, solo en gastos de visitantes, supone 7.885 millones de pesetas es decir un total entre 22.000 y 25.000 millones de pesetas.*

*Martxan zegoen Europa Jauregiarekin batera, Euskalduna eta Kursaal Kongresu Jauregien inaugurazioari esker, euskal hiriburuek bileren merkatuan etapa berriari ekin ahal izan diote.*

*La inauguración de los dos Palacios de Congresos, Euskalduna y Kursaal, unido al ya existente Palacio Europa ha permitido a las capitales vascas iniciar una nueva etapa en el mercado de reuniones.*

## Euskal herriko kongresu-barrutiak

## Los recintos congresuales del País Vasco

### Eskaintzaren karakterizazioa

### Caracterización de la oferta

Euskadi ez da zabaltzeko aukera honetatik kanpo geratu. Bilerekin lotutako turismoa asko garatu da, Bilbon Euskalduna (1999ko otsaila) eta Donostian Kursaal (1999ko ekaina) kongresu-jauregiak inauguratu ondoren. Jauregi horiek, martxan den Gasteizko Europa Jauregiarekin batera, mota honetako ekitaldiak hartzeko oinarrizko azpiegiturak dira, hotel, Merkataritza Ganbara, eraikin berezi, Unibertsitate eta beste hainbat tokitan kokatutako neurri txikiagoko gune eta aretoekin batera.

Bi Jauregien (kongresu-jarduerak eta bilerak, kultur jarduerarekin batera aldi berean egiten dituzte) inaugurazioak, eskaintzaren ikuspegitik ondoko eragin hau izan du:

- Kongresu-ekipamenduen euskal sarea osatzea.
- Aitortutako modernitate, kalitate eta irudiaren arloetako balio erantsia ematen dioten eraikin enblematikoak izatea.
- Neurri handiko kongresu, konbentzio edo bileren merkatuan lan egitea.
- Sektorean baldintza lehiakorragoekin esku-hartzea, ekintza anitzak (kongresuak, konbentzioak, bilerak, azokak, batzarrak...) eta neurri diferentekoak (formatu handia eta ertaina) eskainiz.
- Teknika aurreratueneko ekipamenduak izatea.

Ekipamendu hauek Bilboko Nazioarteko Erakustazokarekin (BNE) -toki berrira mugitzea 2004. urterako aurreikusi dabatera, Euskadi, Estatuko kongresu- eta azoka-arloetan helmuga garrantzitsu bihurtzeko baldintza aproposak eskaintzen dituzte, kalitatezko produktuarekin, eskaera zabaltzeko, eta hiru hiriburuen hirugarren sektorea garatzeko estrategikoa eskainiz.

2003. urtean Bidasoako Azoka Barrutia gehituko zaie Irunen. Guztira 70.480 m2 izango ditu, bost pabilioi -hiru lehen fasean eraikiko dira- eta 1000 plazatarako aparkalekua.

*Euskadi no se ha quedado al margen de esta coyuntura expansiva. El turismo de reuniones ha experimentado un desarrollo considerable gracias a la inauguración de los palacios de congresos Euskalduna en Bilbao (febrero 1999) y Kursaal en San Sebastián (junio 1999) que, junto al ya existente Palacio Europa de Vitoria, constituyen las infraestructuras básicas para acoger este tipo de eventos además de otros recintos y salas de menor tamaño ubicados en hoteles, Cámaras de Comercio, edificios singulares, Universidad, etc.*

*La inauguración de los dos Palacios (que compaginan la actividad congresual y de reuniones con la actividad cultural) ha supuesto, desde la perspectiva de la oferta:*

- *Configurar la red vasca de equipamientos congresuales.*
- *Disponer de edificios emblemáticos, que otorgan un valor añadido de imagen, calidad y modernidad reconocidas.*
- *Operar en el mercado de congresos, convenciones, o reuniones de gran formato.*
- *Intervenir en el sector en condiciones más competitivas por diversidad de eventos (congresos, convenciones, reuniones, ferias, asambleas, ...) y tamaño (formato grande y mediano).*
- *Disponer de equipamientos dotados con las más modernas prestaciones técnicas.*

*Estos equipamientos junto a la Feria Internacional de Bilbao (FIB) -cuyo traslado a la nueva ubicación se prevé para el 2004- sitúan a Euskadi en unas condiciones óptimas para convertirse en un destino relevante y destacado en el panorama congresual y ferial del Estado con un producto de calidad, imprescindible para desestacionalizar la demanda, al tiempo que estratégico para el desarrollo terciario de las tres capitales vascas.*

*En el 2003 se incorporará el Recinto Ferial del Bidasoa, en Irún, con una superficie total de 70.480 m2, cinco pabellones -de los cuales tres se construirán en la primera fase- y parking para 1000 plazas.*

**Kongresu eta azokarako identifikatutako instalazio nagusiak**

**Principales instalaciones de uso congresual y ferial identificadas**

| | |
|---|---|
| ARABA: VITORIA-GASTEIZ<br>• Europa Kongresu Jauregia<br>• Villasuso jauregia (areto nagusia eta 2 areto)<br>• Antzokiak: Principal, Beñat Etxepare<br>• "Jesús Guridi" auditorioa<br>• Kultur Etxea (areto nagusia)<br>• Dendaraba Merkatalgunea (Araba gela)<br>• Luis de Ajuria aretoa<br>• Euskadiko Kutxa<br>• Fakultateak: Filologia, Geografia eta Historia, eta Farmazia<br>• Montehermoso Kultur Zentroa (3 areto)<br>• Miñano Parke Teknologikoa (areto nagusia eta 4 areto)<br>• Hainbat hoteletako aretoak | ARABA: VITORIA-GASTEIZ<br>• *Palacio de Congresos Europa*<br>• *Palacio de Villasuso (salón principal y 2 salas)*<br>• *Teatros: Principal, Beñat Etxepare*<br>• *Auditorio "Jesús Guridi"*<br>• *Casa de Cultura (salón principal)*<br>• *Complejo Comercial Dendaraba (aula Araba)*<br>• *Sala Luis de Ajuria*<br>• *Caja Laboral Popular*<br>• *Facultades: Filología, Geografía e Historia y Farmacia*<br>• *Centro Cultural Montehermoso (3 salas)*<br>• *Parque Tecnológico Miñano (salón de actos y 4 salas)*<br>• *Salas varias en Hoteles* |
| BIZKAIA: BILBAO<br>• Euskalduna Biltzarren eta Musikaren Jauregia<br>• Bilboko Nazioarteko Erakustazoka (8 pabilioi, areto nagusia, 2 hall eta 7 areto)<br>• Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara (hall eta 5 areto)<br>• Butroeko Gaztelua (erakusketa-aretoa eta 4 areto)<br>• Zamudioko Parke Teknologikoa (auditorioa eta 10 areto)<br>• Hainbat hoteletako aretoak | BIZKAIA: BILBAO<br>• *Palacio de Congresos y de la Música Euskalduna*<br>• *Feria Internacional de Bilbao (8 pabellones, salón de actos, 2 halles y 7 salas)*<br>• *Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao (hall y 5 salas)*<br>• *Castillo de Butrón (salón exposiciones y 4 salas)*<br>• *Parque Tecnológico de Zamudio (auditorio y 10 salas)*<br>• *Salas varias en Hoteles* |
| GIPUZKOA: DONOSTIA-SAN SEBASTIAN<br>• Kursaal Elkargunea<br>• Miramar Jauregia (Zerbitzuen Pabilioia, Printzea, Oin Nagusia eta Areto Nagusia)<br>• Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Bazkundea (areto nagusia)<br>• Irakasle Eskola (areto nagusia)<br>• Arkitektura Eskola (areto nagusia)<br>• Aieteko Jauregia (areto nagusia)<br>• Victoria Eugenia Antzokia<br>• Kirol Etxea (areto nagusia)<br>• Miramongo Parke Teknologikoa (auditorioa, 5 areto eta erakusketarako hall-a)<br>• Hainbat hoteletako aretoak | GIPUZKOA: DONOSTIA-SAN SEBASTIAN<br>• *Centro Kursaal*<br>• *Palacio Miramar (Pabellón Servicios, Príncipe, Planta Noble y Salón de Actos)*<br>• *Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa (salón de actos)*<br>• *Escuela de Magisterio (salón de actos)*<br>• *Escuela de Arquitectura (salón de actos)*<br>• *Palacio de Ayete (salón de actos)*<br>• *Teatro Victoria Eugenia*<br>• *Kiro. Etxea (salón de actos)*<br>• *Parque Tecnológico Miramón (auditorio, 5 salas y hall exposiciones)*<br>• *Salas varias en Hoteles* |

Iturria / *Fuente*: Spain Convention Bureau (FEMP). Hiri Atxikien instalazioak. 2001 / *Spain Convention Bureau (FEMP). Instalaciones de Ciudades Adheridas. 2001*

**Kongresu-jauregiak: espazio erabilgarri nagusiak**

**Palacio de Congresos: Principales espacios disponibles**

| | KURSAAL ENTZUTOKIA ETA BATZAR-JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO KURSAAL* | EUSKALDUNA BILTZARREN ETA MUSIKAREN JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS Y DE LA MUSICA EUSKALDUNA* | EUROPA KONGRESU-JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS EUROPA* |
|---|---|---|---|
| ESPAZIO ERABILGARRIAK / *ESPACIOS DISPONIBLES:* | | | |
| • Auditorioa / *Auditorio*: | | | |
| • Edukiera / *Capacidad* | 1.806 lagun / *personas* | 2.164 lagun / *personas* | 475 lagun / *personas* |
| • Eszenatokia / *Escenario* | 350 m2 | 2.049 m2 | |
| • Kamerinoak / *Camerinos* | 15 | 26 | |
| • Entsegu-gela (musikariak, dantza) / *Salas de ensayos (músicos, danza)* | 3 | 10 | |
| • 2. espazioa: Ganbara Aretoa (Kursaal), Antzokia (Euskalduna) / *2º Espacio: Sala de Cámara (Kursaal), Teatro (Euskalduna):* | | | |
| • Edukiera / *Capacidad* | 624 lagun / *personas* | 613 lagun / *personas* | |
| • Eszenatokia / *Escenario* | 120 m2 | 158 m2 | |
| • Areto-kop. (konferentziak, txostenak, batzordeak, mintegiak, eta abar), hainbat konbinaziorako aukera emanez. / *Nº de salas (conferencias, ponencias, comisiones, seminarios, etc.) con distintas combinaciones posibles* | 29 | 26 | 7 |
| • Bankete, cocktail, erakusketa, eta abarrerako espazio balioanitzak (hall, foyer, aretoak, eta abar) / *Espacios polivalentes para banquetes, cocktails, exposiciones, etc. (hall, foyer, salas etc.)* | 7.700 m2 | 8.000 m2 | 420 m2 |
| • Kanpoko terrazak / *Terrazas exteriores* | 5.150 m2 | 1.150 m2 | -- |
| • Jatetxeak, kafetegiak / *Restaurantes, cafeterías* | 5 | 6 | -- |

Iturria / *Fuente*: *Asociación de Palacios de Congresos de España. Palacio Euskalduna y Centro Kursaal. 2001*

*Euskalduna Jauregia eta Kursaal Zentroa dira Estatu osoan ISO Kalitate Ziurtagiria eskuratu duten Kongresu Jauregi bakarrak.*

*El Palacio Euskalduna y el Centro Kursaal , únicos Palacios de Congresos del Estado que cuentan con la Certificación de Calidad ISO.*

Euskalduna, hiru Jauregien artean handiena da; auditorioak 2.164 lagunentzat edukiera du, Kursaalak 1.806 duen bitartean. Europa Jauregiaren areto nagusiak 475 lagunentzat lekua du.

Euskaldunak eta Kursaalak bestalde, bigarren espazioa dute (Antzokia eta Ganbara Aretoa hurrenez hurren) 600 lagun inguruko edukierarekin, eta neurri diferenteko aretoak, konbinaketa diferenteak egiteko aukerarekin; hori, erabil daitezkeen gainerako espazio balioanitzei (hall, foyer, erakusketa-aretoak, eta abar) lotuta, eraikin hauei malgutasuna, balioaniztasuna eta aldakortasuna eskaintzen die hainbat jardueretara egokitzeko.

Duela gutxi Kursaal Zentroa 2000. urteko Europako Eraikin Onena izendatu dute (Mies van del Rohe saria). Era berean Euskalduna Jauregiak eta Kursaal Zentroak bakarrik lortu dute Estatu osoan ISO Kalitate Ziurtagiria: Bilboko eraikinaren kasuan 9002/94 ziurtagiria eta Kursaal Zentroaren kasuan berriz 9001/2000 ziurtagiria. Gertakari hori baloratu egin behar da guztien artean bereizteko, besteekin lehiatzeko garaian, kalitatearen bidetik merkatuan lekua hartzeko eta erakundeen sustapen-kanpainetan babesa bilatzeko.

*El Euskalduna, es el mayor de los tres Palacios con un auditorio para 2.164 personas mientras la capacidad del Kursaal es de 1.806. El principal espacio del Palacio Europa tiene un aforo para 475 personas.*

*Euskalduna y Kursaal cuentan, además, con un segundo espacio (Teatro y Sala de Cámara, respectivamente) con capacidad para unas 600 personas, y una dotación de salas de diferentes superficies, susceptibles de combinaciones diferentes; ello, unido a los demás espacios polivalentes disponibles (hall, foyer, salas de exposiciones, etc.) otorgan a estos edificios un carácter flexible, polivalente y versátil para acoger actividades dispares.*

*Recientemente el Centro Kursaal ha sido designado Mejor Edificio Europeo del año 2000 (Premio Mies van del Rohe). Igualmente tanto el Palacio Euskalduna como el Centro Kursaal son los únicos Palacios de Congresos del Estado que han conseguido la Certificación de Calidad ISO: la 9002/94 en el caso del edificio bilbaino y la 9001/2000, en el caso del guipuzcoano. Esta circunstancia debe valorarse como un hecho diferencial exclusivo para posicionarse ventajosamente en el mercado por la vía de la calidad y para apoyarse en las campañas promocionales institucionales.*

**Kongresu-aretoetako langileen kopurua gutxi gorabehera**

**Aproximación al empleo de los recintos congresuales**

| | KURSAAL ENTZUTOKIA ETA BATZAR-JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO KURSAAL* | EUSKALDUNA BILTZARREN ETA MUSIKAREN JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS Y DE LA MUSICA EUSKALDUNA* | EUROPA KONGRESU-JAUREGIA / *PALACIO DE CONGRESOS EUROPA* |
|---|---|---|---|
| ENPLEGUA / *EMPLEO:* | | | |
| • Egiturako plantila / *Plantilla estructural* | 12 | 19 | 6* |
| • Pertsonal laguna / *Personal asociado* | 100-120 lagun/urte / *personas/año* | e.d. / *n.d.* | e.d. / *n.d.* |

* 3 denbora zatizkoa / *3 a tiempo parcial*

Iturria / *Fuente*: *Centro Kursaal, Palacio Euskalduna y Palacio Europa. 2001*



*Ekipamenduez gain, kongresu-turismoek inguruko enpresez (azafatak, interpretariak, teknikariak eta abar) osatutako azpiegitura behar dute. Enpresa horien zerbitzuak, jardueraren arabera azpikontratatzen dira. Zerbitzu hauek Euskadin egiten duten lana ondo baloratuta dago.*

*Además de los equipamientos, el turismo congresual necesita de una infraestructura de empresas auxiliares (azafatas, intérpretes, técnicos, etc.) cuyos servicios se subcontratan en función de la actividad. La cobertura de estos servicios en Euskadi se valora positivamente.*

Enpleguari dagokionean, Euskalduna Jauregiak bere gain 19 langile ditu, Kursaal Zentroak 12 eta Europa Jauregiak 6, hauetatik 3 denbora zatizko daudela.

Bestalde, ekipamenduek kanpotik hainbat zerbitzu azpikontratatzen dituzte:

1. Iraunkor bezala: zainketa orokorrekoak eta eszenatokikoak, segurtasuna eta garbiketa. Europa Jauregiaren kasuan, eraikinaren garbiketa eta zainketa Udalak egiten du.
2. Aldi baterako, kongresu, bilera edo kultur jarduerekin lotutako zerbitzuak (azafatak, itzulpena, eszenatokiaren muntatzea, txartel-leihatila, eta abar) normalean Kongresuen Antolatzaile Profesionalen enpresen bidez.

Azpikontratatutako enpleguarekin lotuta, kopuru bat ematea zaila da; kalkulatu behar da, Kursaalaren jarduerekin lotutako zerbitzuei lotutako azpikontratatutako enplegu finkoa eta aldi baterakoa guztira 100-120 lagunez osatuta dagoela, horietatik %45 jatetxe- eta catering-zerbitzuei dagokie, %13 segurtasun-jarduerei eta %12 zerbitzu pertsonalei (azafatak eta abar). Ondorioz, berezko enplegu bakoitzeko azpikontratatutako 10-12 enplegu inguruko ratioa izango genuke.

*En términos de empleo, el Palacio Euskalduna cuenta con una plantilla propia de 19 personas, el Centro Kursaal, de 12 y el Palacio Europa, 6 aunque de éstas 3 están a tiempo parcial.*

*Además, los equipamientos subcontratan externamente una serie de servicios:*

1. *Con carácter fijo: los de mantenimiento general y escénico y la seguridad y la limpieza. En el caso del Palacio Europa, la limpieza y mantenimiento del edificio las realiza el Ayuntamiento.*
2. *Con carácter eventual aquellos servicios relacionados con las actividades congresuales, de reuniones o culturales (azafatas, traducción, montaje escénico, taquilla, etc.) normalmente a través de las empresas OPC's*

*En relación al empleo subcontratado resulta difícil dar una cifra pero el Centro Kursaal, calcula que el empleo subcontratado, fijo y eventual, asociado a los servicios relacionados con las actividades propias del Kursaal asciende en total a unas 100-120 personas de las cuales el 45% son empleos correspondientes a los servicios de restauración y catering, un 13% corresponde a actividades de seguridad y un 12% a servicios personales (azafatas, etc.). En consecuencia, se tendría un ratio aproximado de 10-12 empleos subcontratados por cada empleo propio.*



*2000. urtean hiru Jauregiak batera hartuta 494 bilera egin zituzten, horietatik 185 (%37) konbentzioak eta kongresuak izan ziren. Hauek, duten egituragatik eta SCBaren arabera, bertan gutxienez gau bat ematea eskatzen dute.*

*En el año 2000 los tres Palacios acogieron conjuntamente un total de 494 reuniones, de las cuales 185 (37%) fueron convenciones y congresos que, por su naturaleza y según el SCB, requieren, al menos, una pernoctación.*

## Jarduera-Maila

## Nível de actividad

### Euskalduna Jauregia

2000. urtean, Bilboko Euskalduna Jauregian 289 kongresu eta bilera egin ziren, eta bertan 166.472 lagunek hartu zuten parte.

Nagusiki mintegiak eta jardunaldiak egin dira (guztiaren %33), ondoren enpresa-konbentzioak (%30) eta kongresuak eta hauekin lotuak (%14), 40 guztira. Batzar nagusiak, gizarte-ekitaldiak, erakusketak eta antzeko ekintzek osatzen dute Jauregiko bileren jardueren %23.

Tipologiaren araberako banaketak, ekitaldien iraupenean eragiten du. Horrenbestez, horietako gehienak (%78) egun berean hasi eta amaitu zirenez, ikuspegi turistikotik (gauak bertan eman) bost ekitalditatik bakarrak ematen zuen gaua bertan emateko aukera. Batez ere kongresuetan ematen da hori; bertan egonaldia 2 eta 3 egun bitartean luzatzen da.

Bilerak antola ditzaketen sektoreei dagokienez, %55 enpresa-esparrutik sustatu zituzten. Kongresuetara mugatuta, osasun sektorea egongo da zerrendaren buru, %60ko kuotarekin.

### *Palacio Euskalduna*

*En el año 2000, el Palacio Euskalduna de Bilbao acogió un total de 289 eventos congresuales y de reuniones, con un total de 166.472 participantes.*

*Los seminarios y jornadas constituyen la tipología de evento predominante (33% del total), seguido de las convenciones de empresa (30%) y los congresos y asimilados (14%) que ascendieron a un total de 40. Otros eventos tales como asambleas generales, actos sociales, exposiciones, etc., concentran el 23% de la actividad de reuniones del Palacio.*

*La distribución según tipología repercute en la duración de los propios eventos. Así, una gran mayoría de éstos ( 78%) se iniciaron y concluyeron el mismo día por lo que desde la perspectiva turística (pernoctaciones) solo uno de cada cinco eventos dio lugar a pernoctaciones. Se trata sobre todo de los congresos, en los que la estancia se prolonga normalmente entre 2 y 3 días.*

*En cuanto a sectores generadores de las reuniones, el 55% de las mismas fueron promovidas desde el ámbito empresarial. Referido estrictamente a los congresos, el sector sanitario pasa a encabezar el ranking, con una cuota del 60%.*

**Kongresu eta bileren jarduera. Euskalduna jauregia. 2000. urtea**

**Actividad congresual y de reuniones. Palacio Euskalduna. año 2000**

| | |
|---|---|
| EKITALDIAK GUZTIRA / *TOTAL EVENTOS* | 289 |
| KONGRESUAK ETA ANTZEKOAK / *CONGRESOS Y ASIMILADOS* | 40 |
| 1000 lagun baino gehiago / *Más de 1000 asistentes* | 4 |
| 1000 arte / *Hasta 1000* | 4 |
| 750 arte / *Hasta 750* | 12 |
| 500 arte / *Hasta 500* | 4 |
| 300 arte / *Hasta 300* | 16 |
| • BATZAR ETA BILTZAR NAGUSIAK / *JUNTAS Y ASAMBLEAS GENERALES* | 18 |
| • KONBENTZIOAK ETA ENPRESA-EKINTZAK / *CONVENCIONES Y ACTOS DE EMPRESA* | 87 |
| • MINTEGIAK ETA JARDUNALDIAK / *SEMINARIOS Y JORNADAS* | 95 |
| • GIZARTE-EKINTZAK / *ACTOS SOCIALES* | 21 |
| • GIZARTE-EKINTZAK IKUSKIZUNAK BARNE / *ACTOS SOCIALES CON ESPECTÁCULO* | 10 |
| • HAINBAT (ERAKUSKETAK, IRRATIA, TB) / *VARIOS (EXPOSICIONES, RADIO, TV)* | 18 |
| BERTARATUTAKOAK GUZTIRA / *TOTAL ASISTENTES* | 166.472 |
| • ORDEZKARIAK / *DELEGADOS* | 54.414 |
| • BESTELAKO BERTARATUTAKOAK / *OTROS ASISTENTES* | 112.058 |

Iturria / *Fuente*: Euskalduna Jauregia / *Palacio Euskalduna.*

## Kursaal Zentroa

Kursaal Jauregian, 2000. urtean bileren turismoarekin lotutako 152 ekitaldi egin ziren.
Kongresu, konbentzio eta jardunaldiak, ekitaldi guztien %54 izan ziren, eta gainerako %46 azokek, gizarte-ekitaldiek, produktuen aurkezpenek eta abar osatzen dute.

Bertaratutakoen kopuruari dagokionean, azokek jendea erakartzeko ahalmen handiagoa dute, bertaratutako guztien %48 azoketara etorri baitira; jardunaldi eta kongresuek jendea ekartzerako antzeko ahalmena dute, bertaratutako guztien %11 bakoitzak.

Euskaldunan bezala, enpresa-sektoreak sustatzen ditu Kursaalean egindako bilera gehienak (%55), Erakunde, Elkargo eta Elkarte Profesional edo Medikuntzakoek baino bilera gehiago sustatzen dituzte (lehenengoa guztien %55era heltzen den bitartean, gainerakoak %11, %10 eta %8 hurrenez hurren).

## *Centro Kursaal*

*En el Palacio Kursaal, los eventos asociados al turismo de reuniones ascienden a un total de 152 en el año 2000.*
*Los congresos, convenciones y jornadas representan el 54% del total de eventos y el 46% restante corresponde a ferias, actos sociales, lanzamientos de productos, etc.*

*En términos de asistencia, las ferias tienen la mayor capacidad de convocatoria, concentrando el 48% de las asistentes mientras las jornadas y los congresos tienen un poder de convocatoria similar, en torno al 11% cada uno.*

*Al igual que en el Euskalduna, el sector empresarial promueve la mayor parte de las reuniones celebradas en el Kursaal (55%) con una cuota muy superior a las correspondientes al ámbito institucional, Colegios y Asociaciones Profesionales o Medicina (55%, frente a 11%, 10% y 8%, respectivamente).*

**Kongresu eta bileren jarduera. Kursaal zentroa. 2000. urtea**

**Actividad congresual y de reuniones. Centro Kursaal. Año 2000**

| | |
|---|---|
| EKITALDIAK GUZTIRA / *TOTAL EVENTOS* | 152 |
| • KONGRESUAK ETA KONBENTZIOAK / *CONGRESOS Y CONVENCIONES* | 30 |
| • JARDUNALDIAK / *JORNADAS* | 52 |
| • AZOKAK / *FERIAS* | 7 |
| • EKITALDI SOZIALAK, PRODUKTUEN AURKEZPENAK, ETA ABAR. / *ACTOS SOCIALES, LANZAMIENTOS PRODUCTOS, ETC.* | 63 |
| BERTARATUTAKOAK GUZTIRA / *TOTAL ASISTENTES* | 116.474 |
| • KONGRESUAK ETA KONBENTZIOAK / *CONGRESOS Y CONVENCIONES* | 12.460 |
| • JARDUNALDIAK / *JORNADAS* | 13.140 |
| • AZOKAK / *FERIAS* | 56.200 |
| • EKITALDI SOZIALAK, PRODUKTUEN AURKEZPENAK, ETA ABAR. / *ACTOS SOCIALES, LANZAMIENTOS PRODUCTOS, ETC.* | 34.674 |

Iturria / *Fuente*: Kursaal Zentroa / *Centro Kursaal.*

## Europa Jauregia

Europa Jauregian bestalde, 53 ekitaldi egin ziren 2000. urtean, 22 kongresu, 6 enpresa-konbentzio eta jardunaldiak, mintegiak eta sinposioak biltzen dituzten 25 ekitaldi. Berriz ere agerian geratzen da medikuntza-osasunaren sektorearen garrantzia bilerak antolatzeko sektore gisa (%35).

## *Palacio Europa*

*El Palacio Europa, por su parte, acogió un total de 53 eventos a lo largo del año 2000, distribuidos en 22 congresos, 6 convenciones de empresa y 25 eventos que engloban jornadas, seminarios y simposios. Nuevamente se pone de manifiesto la importancia del sector médico-sanitario, como sector generador de reuniones (35%).*

**Kongresu eta bileren jarduera. Europa jauregia. 2000 urtea**

**Actividad congresual y de reuniones. Palacio Europa. Año 2000**

| | |
|---|---|
| EKITALDIAK GUZTIRA / *TOTAL EVENTOS* | 53 |
| • KONGRESUAK / *CONGRESOS* | 22 |
| Eskualdekoak / *Regionales* | 11 |
| Nazionalak / *Nacionales* | 9 |
| Nazioartekoak / *Internacionales* | 2 |
| • ENPRESA-KONBENTZIOAK / *CONVENCIONES DE EMPRESA* | 6 |
| • JARDUNALDIAK, SINPOSIOAK, MINTEGIAK / *JORNADAS, SIMPOSIOS, SEMINARIOS* | 25 |

Iturria / *Fuente*: Europa Jauregia / *Palacio Europa.*

*Gasteiz, Donostia eta Bilbok, bilera-helmuga bezala sustatzeko euren Convention Bureau-a dute.*

*Vitoria, San Sebastián y Bilbao cuentan con su propio Convention Bureau para promocionarse como destinos de reuniones.*

# Convention Bureau-ek erregistratutako jarduera

# Actividad registrada por los Convention Bureau

Kongresu Jauregien estatistikekin ez da amaitzen Euskadin egindako bilerei eta bertaratutakoei buruzko informazioa, izan ere hiriburuetako Convention Bureau-ek (CB) kongresuetako jarduerari buruzko estatistikak ere egiten dituzte.

CBak, bileren turismoarekin lotutako ekitaldiak erakartzeko euskal hiriburuak sustatzeko agente nagusiak dira. Bertako estatistiketan kongresu, konbentzio, jardunaldiekin lotutako ekitaldiak bakarrik hartzen dira kontuan, Jauregiek zenbatutako beste hainbat kanpoan utziz (biltzarrak, batzar nagusiak, azokak, eta abar). Horregatik, guztizko datuak ezin dira konparatu.

Bi iturrietan jasotako ekitaldiei buruz bikoiztasunik ote dagoen jakin ezin denez, ez eranstea eta bakoitza bere aldetik aurkezteko erabakia hartu dute.

*La estadística de los Palacios de Congresos no agota la información sobre asistentes y reuniones celebradas en Euskadi, ya que los Convention Bureau (CB) de las capitales elaboran también estadísticas sobre la actividad congresual.*

*Los CB constituyen el principal agente de promoción de las capitales vascas para atraer eventos asociados al turismo de reuniones. Sus estadísticas solamente contabilizan eventos asociados a congresos, convenciones, jornadas y seminarios y excluyen otros eventos recogidos por los Palacios (juntas, asambleas generales, ferias, etc.) . Por ello, los datos totales no son comparables.*

*Como no es posible identificar si existen duplicidades sobre eventos recogidos en ambas fuentes se ha optado por no agregarlas y presentarlas por separado.*

## Ekitaldiak eta Bertaratuak

## Eventos y Asistentes

Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureauek 2000. urtean guztira 451 bilera egin zirela (Jauregien arabera 357), eta bertan 87.457 ordezkari edo lagun izan zirela zenbatu dute. Datu horiek ikusita, Euskadiren kuota estatuko bileren merkatuan (10.073 bilera eta 1.874.841 ordezkari SCB erakundearen arabera) %4,5en inguruan zehazten da, egindako ekitaldien kopuruari zein bertaratutako lagunei dagokienean.

*Los eventos contabilizados por los Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria suman un total de 451 reuniones en el año 2000 (357 según los Palacios) con una participación global de 87.457 delegados o asistentes. A la vista de estos datos, la cuota de Euskadi en el mercado de reuniones estatal (10.073 reuniones y 1.874.841 delegados según el SCB) se establece en torno al 4,5%, tanto en lo que se refiere a número de eventos celebrados como en lo que se refiere a asistentes.*

**Egindako bilerak, motaren arabera. 2000**

**Reuniones celebradas según tipo. 2000**

| | Guztira / *Total* | Kongresuak / *Congresos* | Konbentzioak / *Convenciones* | Jardunaldiak, mintegiak, sinposioak / *Jornadas, seminarios, simposios* |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 103 | 30 | 13 | 60 |
| Bizkaia | 280 | 151 | 101 | 28 |
| Gipuzkoa | 68 | 38 | 8 | 22 |
| Euskadi | 451 | 219 | 122 | 110 |
| Estatua / *Estado* | 10.073 | 1.686 | 3.420 | 4.967 |
| Kuota Euskadi (%) / *Cuota Euskadi (%)* | 4,5 | 13,0 | 3,6 | 2,2 |

Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau. Spain Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Spain Convention Bureau.*

**Bertaratuak, bilera-motaren arabera. 2000**

**Asistentes según tipo de reunión. 2000**

| | Guztira / *Total* | Kongresuak / *Congresos* | Konbentzioak / *Convenciones* | Jardunaldiak, mintegiak, sinposioak / *Jornadas, seminarios, simposios* |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 15.500 | e.d./*n.d.* | e.d./*n.d.* | e.d./*n.d.* |
| Bizkaia | 52.470 | 5.040 | 37.980 | 9.450 |
| Gipuzkoa | 19.487 | 3.600 | 12.507 | 3.380 |
| Euskadi | 87.457 | e.d. / *n.d.* | e.d. / *n.d.* | e.d. / *n.d.* |
| Estatua / *Estado* | 1.874.841 | 583.638 | 554.016 | 737.187 |
| Kuota Euskadi (%) / *Cuota Euskadi (%)* | 4,7 | e.d./*n.d.* | e.d./*n.d.* | e.d./*n.d.* |

Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau. Spain Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Spain Convention Bureau.*

*1998. eta 2000. urteen arabera, Euskadin bileren turismoarekin lotutako ekitaldietan parte hartu dutenen kopuruak %58 egin du gora.*

*Entre 1998 y 2000, los asistentes en Euskadi a eventos asociados al turismo de reuniones han aumentado un 58%.*

1998an izandako kongresu eta bilerekin (351 ekitaldi) konparatuz gero, eboluzio positiboa ikus dezakegu (%29ko gehikuntza); hala ere turismoaren ikuspuntutik oraindik positiboagoa da bertaratuen kopuruaren eboluzioa, izan ere bi urteko epean 32.000 lagun gehiago bertaratu dira (%58ko gehikuntza).

*La comparación con la actividad congresual y de reuniones registrada en 1998 (351 eventos) muestra una evolución ciertamente favorable (29% de incremento), pero desde el punto de vista turístico, aún es más positiva la evolución del número de asistentes, que aumenta en más de 32.000 personas en el periodo de dos años (58% de incremento).*

*2000. urteko ekitaldi gehienak Bizkaian egin dira (%62); hala ere Arabak eta Gipuzkoak gora egin dute bileren euskal merkatuaren kuotetan.*

*La mayor parte de los eventos celebrados en 2000 han tenido lugar en Bizkaia (62%), aunque tanto Alava como Gipuzkoa han incrementado sus respectivas cuotas en el mercado vasco de reuniones.*

2000ko ekitaldien %62 Bizkaian egin dira, Araban %23 eta Gipuzkoan %15. Hala ere, 1998an emandako banaketarekin alderatuz gero, Arabak eta Gipuzkoak, bileren euskal merkatuan kuotak %10 eta %4 hurrenez hurren hobetu dituztela ikus daiteke.

*El 62% de los eventos celebrados en 2000 han tenido lugar en Bizkaia, mientras los porcentajes alavés y guipuzcoano son, respectivamente un 23% y 15%. Sin embargo, la comparación con la distribución obtenida en 1998 muestra que tanto Alava como Gipuzkoa han mejorado en 10 y en 4 puntos porcentuales, respectivamente, sus cuotas en el mercado vasco de reuniones.*



Bileren inguruko euskal merkatuaren lurralde-banaketa. Ekitaldiak guztira. 1998 eta 2000
Distribución territorial del mercado vasco de reuniones. Total eventos. 1998 y 2000




Bileren inguruko euskal merkatuaren banaketa. Bertaratuak guztira. 1998 eta 2000
Distribución territorial del mercado vasco de reuniones. Total asistentes. 1998 y 2000




Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria*

## Bilera-mota

## Tipo de reunión

*Euskal Convention Bureau-en arabera, antolatutako ekitaldien artean kongresuak (%49) nagusitzen dira nabarmen, enpresa-konbentzioen (%27), eta jardunaldi, mintegi eta sinposioen (%24) gainetik.*

*Según los Convention Bureau vascos, los congresos (49%) predominan claramente sobre las convenciones de empresa (27%) y las jornadas, seminarios y simposios (24%).*

2000. urtean, Euskadin bileren turismoarekin lotutako jardueran kongresuen nagusitasuna azpimarra daiteke, egindako ekitaldi guztien %49 baita, enpresen konbentzioen (%27), eta jardunaldi, mintegi eta sinposioen (%24) aurretik. 1998an Euskalduna eta Kursaal jauregiak ireki gabe, kongresuak, ekitaldien %32ra besterik ez ziren heltzen. Kopuru absolutuetan 1998an antolatutako 112 kongresutatik 219ra pasatu dira (Δ %95).

Lurraldeen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan bilera-moten artean kongresuak nagusitzen dira (guztiaren %54 eta %56 hurrenez hurren); Araban berriz jardunaldiak, mintegiak eta sinposioak (%58) nagusitzen dira.

Estatuan, jardunaldiak, mintegiak eta sinposioak ere nagusi dira bilera-moten artean (%49), kongresuak %17ra bakarrik heltzen diren bitartean.

Estatu osoan egindako ekitaldiekiko Euskadiko kuota aztertzen badugu, ikus daiteke gure lurraldea kongresuak antolatzen espezializatu dela, 2000. urtean Estatu osoan egindako kongresu guztien %13ko kuotarekin. Hala ere, konbentzio eta jardunaldietan izan duten parte-hartzea askoz ere txikiagoa da estatuko datuekin konparatzen badugu.

*En el año 2000, la actividad asociada al turismo de reuniones en Euskadi destaca por el predominio de los congresos, que concentran el 49% del total de los eventos celebrados, por delante de las convenciones de empresa (27%) y las jornadas, seminarios y simposios (24%). En 1998, sin el Palacio Euskalduna y el Kursaal funcionando, los congresos representaban sin embargo el 32% de los eventos. En números absolutos se ha pasado de 112 congresos organizados en 1998 a 219 (Δ 95%).*

*Por territorios, el tipo de reunión predominante tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa es el congreso (54% y 56% del total, respectivamente) mientras en Alava predominan las jornadas, seminarios y simposios (58%).*

*En el Estado, las jornadas, seminarios y simposios son también el tipo de reunión más frecuente (49%) y los congresos sólo suponen un 17%.*

*El análisis de la cuota de Euskadi respecto al conjunto de eventos celebrados en todo el Estado confirma la especialización de nuestro territorio en la organización de congresos con una cuota del 13% del total de congresos celebrados en el Estado en el 2000. En cambio, la participación en convenciones y jornadas resulta mucho menos significativa en el marco estatal.*

Egindako bilerak, lurraldearen arabera. 2000
Reuniones celebradas según tipo. 2000




Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria*

## Sektore sortzaileak

## Sectores generadores

*Ekitaldi-kopuru handiena eragiten duten sektoreak medikuntza-osasuna, ekonomikoa eta komertziala, publikoa, unibertsitatea eta teknologikoa dira.*

*Los sectores que generan el mayor número de eventos son el médico-sanitario, el económico-comercial, el sector público, la universidad y el sector tecnológico.*

Hiru lurralde historikoetan medikuntza-osasun jarduerak eragiten ditu ekitaldi gehien: Araban, bileren %35, Bizkaian %32 eta Gipuzkoan bileren %27.

Ekitaldien antolaketa tradizionalki sustatzen duten beste sektoreak ondoko hauek dira: sektore publikoa (Araban eta Gipuzkoan bigarren sektore garrantzitsuena), unibertsitatea, sektore teknologikoa edo sektore ekonomiko eta komertziala, beste hainbaten artean.

Estatuaren esparruan, bileren sustatzaileen zerrendaren buru sektore ekonomikoa eta komertziala dago, lehen aldiz medikuntza-osasun sektorearen aurretik. Bi sektoreek elkarrekin, 2000. urtean estatuan egindako ekitaldi guztien %42 osatzen dute.

Jarduera sektore sortzaileetan banatzea lurraldearen ehun ekonomikoarekin lotuta dago eta, zentzu honetan, bertako profesionalek paper erabakigarria dute ekitaldi-agintari gisa, eta Kongresuen Jauregiak, hurbileko ingurunearen jarduera sozioekonomikoaren zerbitzurako ekipamendu gisa erabiltzen dituzte.

Hala ere, euren proposamenak aurrera ateratzeko aukera handiagoa dute harrera-hiriak sustapen-laguntzen eta ekipamenduaren babesa badu, hots, sektore horretan ezaguna bada.

*El sector que genera más eventos en los tres territorios históricos es la actividad médico-sanitaria: 35% de las reuniones en Alava, 32% en Bizkaia y 27% en Gipuzkoa.*

*Otros sectores que tradicionalmente promueven la celebración de eventos son el sector público (segundo sector en importancia en Alava y en Gipuzkoa), la universidad, el sector tecnológico o el sector económico-comercial, por citar algunos ejemplos.*

*En el marco estatal, el sector que encabeza el ranking de promotores de reuniones es el económico-comercial, que se sitúa por primera vez por delante del sector médico-sanitario. Ambos sectores generan en conjunto el 42% del total de eventos celebrados en 2000 en territorio estatal.*

*La segmentación de la actividad por sectores generadores está vinculada al tejido económico del territorio y, en este sentido, los profesionales locales juegan un papel determinante como prescriptores de eventos y hacen valer la condición de los Palacios de Congresos de equipamientos al servicio de la actividad socioeconómica del entorno inmediato.*

*Ahora bien, sus propuestas tienen más posibilidades de prosperar si la ciudad de acogida cuenta con el respaldo de apoyos promocionales y el equipamiento, un prestigio reconocido. Es decir, si se trata de un destino conocido en el sector.*

**Bilerak antolatzen dituzten sektoreak. 2000**

**Sectores generadores de las reuniones. 2000**

(%tan)*(en %)*

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Estatua / *Estado* |
|---|---|---|---|---|
| Medikuntza-osasuna / *Médico-sanitario* | 35,0 | 32,0 | 26,5 | 20,2 |
| Zientifikoa / *Científico* | 5,0 | 7,8 | 1,5 | 5,4 |
| Kulturala / *Cultural* | 10,0 | 5,5 | 4,4 | 11,7 |
| Ekonomiko eta komertziala / *Económico-comercial* | 5,0 | 5,1 | 13,2 | 22,2 |
| Sektore publikoa / *Sector público* | 25,0 | 5,0 | 19,1 | 9,7 |
| Teknologikoa / *Tecnológico* | 10,0 | 9,5 | 7,4 | 4,7 |
| Unibertsitatea / *Universidad* | 10,0 | 20,6 | 10,3 | 11,3 |
| Bestelakoak / *Otros* | - | 14,5 | 17,6 | 14,9 |

Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau. / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria.*

Bilerak antolatzen dituzten sektoreak. 2000
Sectores generadores de las reuniones. 2000




Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria*



## Lurralde Esparrua

## Ambito territorial

*2000. urtean Euskadin egindako bileren %46 nazio-mailakoak dira, %31 nazioarte-mailakoak eta gainerako %23 eskualde-mailakoak.*

*El 46% de las reuniones celebradas en Euskadi en el año 2000 son de ámbito nacional, el 31% son eventos internacionales y el 23% restante son regionales.*

SCB erakundeak ekitaldiak, hiru lurralde-tipologiaren arabera sailkatzen ditu:

- **Eskualdekoa:** normalean eskualde edo Autonomia Erkidego beraren barne ematen da.
- **Nazionala:** gutxienez ordezkarien %60, bilera egingo den herrialdekoak dira.
- **Nazioartekoa:** partaideak gutxienez hiru herrialdetakoak direnean eta ordezkarien %40 atzerritarrak direnean.

Sailkapen honi jarraituta, Euskadin 2000. urtean egindako bileren %46 nazio-mailakoak dira, nazioartekoak (%31) eta eskualde-mailakoak (%23) baino gehiago. Nazio-mailako ekitaldiak Estatuan (%47) ere nagusitzen badira, kasu honetan eskualde-mailako bilerak nazioartekoen gainetik daude (%30 eta %23 hurrenez hurren).

Lurraldeen arabera, Araban eta Gipuzkoan nazioarte-mailako oso ekitaldi gutxi daude, Bizkaian %47 diren bitartean, bilera nazionalen proportzioaren oso antzekoa.

*El SCB clasifica los eventos en función de tres tipologías territoriales:*

- ***Regional:** normalmente tiene lugar dentro de la propia región o Comunidad Autónoma.*
- ***Nacional:** al menos un 60% de los delegados proceden del país donde se celebra la reunión.*
- ***Internacional:** con participación de al menos tres nacionalidades distintas y al menos un 40% de los delegados son extranjeros.*

*Atendiendo a esta clasificación el 46% de las reuniones celebradas en Euskadi a lo largo del año 2000 es de ámbito nacional, con significativa ventaja sobre los eventos internacionales (31%) y regionales (23%). Los eventos nacionales también predominan en el Estado (47%) pero, en este caso, las reuniones regionales superan a las de ámbito internacional (30% frente a 23%).*

*Por territorios, en Alava y Gipuzkoa los eventos de carácter internacional son muy minoritarios en tanto que en Bizkaia suponen un 47% del total, proporción muy similar a la de las reuniones nacionales.*

**Euskadin egindako bilerak, lurraldearen arabera. 2000**

**Reuniones celebradas en Euskadi, según ámbito territorial. 2000**

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| Bilerak guztira / *Total reuniones* | 451 | 103 | 280 | 68 |
| Eskualdekoak / *Regionales* | 103 | 49 | 17 | 37 |
| Nazionalak / *Nacionales* | 209 | 51 | 131 | 27 |
| Nazioartekoak / *Internacionales* | 139 | 3 | 132 | 4 |

Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau. / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria.*

## Egutegia

## Calendario

*Bilerek harrera-hiriei kalitatezko turismoa eskaintzen diete, eta eskaera urte-sasoi guztietara zabaltzea ekartzen dute, oporretako turismoarekin lotutako ohiko garaietatik kanpo egiten direlako.*

*Las reuniones aportan a las ciudades de acogida un turismo de calidad y contribuyen a desestacionalizar la demanda al celebrarse fuera de los períodos tradicionalmente asociados al turismo vacacional.*

Bileren turismoaren hilabeterik gozoenak apirila, maiatza, ekaina, urria eta azaroa dira. Turismo-kudeaketako estrategia batetik begiratuta, gertakari horrek turismo-mota honi interesa gehitzen dio, oporretako eta aisiarako turismoaren urtarokotasunari lotutako ondorioak murrizten laguntzen duelako batetik, eta eskura dauden bitartekoak (azpiegiturak, giza baliabideak, eta abar) aprobetxatzen laguntzen dutelako bestetik.

Gipuzkoan, bost hilabete hauetan sortutako jarduerak, 2000. urtean egindako bilera guztien %75 dira, Araban eta Bizkaian urte osoarekiko %68 eta %61 diren bitartean hurrenez hurren. Hiru kasuetan, proportzioak Estatuari dagokion kontzentrazio-maila (%60) baino altuagoak dira.

*El turismo de reuniones tiende a concentrar su actividad en los meses de abril, mayo, junio, octubre y noviembre. Desde una estrategia de gestión turística, esta circunstancia otorga a este tipo de turismo un interés añadido porque contribuye a minimizar los efectos asociados a la estacionalidad del turismo vacacional y de ocio, además de optimizar el aprovechamiento de los recursos disponibles (infraestructuras, recursos humanos, etc.)*

*En Gipuzkoa, la actividad originada durante estos cinco meses representa el 75% del total de reuniones celebradas en 2000, en tanto que en Alava y en Bizkaia representa el 68% y el 61% del total anual, respectivamente. En los tres casos, las proporciones son superiores al grado de concentración correspondiente al Estado (60%).*



Bilerak, hilabeteen arabera banatuta. 2000
Distribución mensual de las reuniones. 2000




Iturria / *Fuente*: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Convention Bureau / *Convention Bureau de Bilbao, San Sebastián y Vitoria*

# Bilboko Nazioarteko Erakustazoka: erronka berriak, hedatzen ari den jarduera batentzat

# La Feria Internacional de Bilbao: nuevos retos para una actividad en expansión

## Instalazioak

## Instalaciones

*Erakusketarako 90.000 m2 garbiri esker, BNE Estatuko laugarren azoka-barruti garrantzitsuena da.*

*90.000 m2 expositivos netos convierten a la FIB en el cuarto recinto ferial más importante del Estado.*

1932an ireki zuten Bilboko Nazioarteko Erakustazoka (BNE), gaur egun arte Euskadiko Erakustazoka bakarra da. Guztira 130.000 m2 ditu, horietatik 90.000 m2 erakusketarako dira eta 8 pabilioitan banatuta daude. Pabilioi horiek 1958. eta 1990. urteen artean eraiki zituzten eskaeraren premien arabera.

BNE Estatuko laugarren azoka-barruti garrantzitsuena da Madril, Bartzelona eta Valentziakoaren ondoren, eta jarduera guztietarako 1998az geroztik ISO 9001 Arauarekin homologatutako Estatuko azoka-erakunde bakarra da:

- saioak diseinatu eta antolatzen
- kongresu eta ekitaldien antolakuntza
- barrutien alokairua
- kongresuetan parte hartzeko zerbitzu integralak eskaintzea

Hala ere, gaur egungo eraikinak hainbat eragozpen ditu, besteak beste:

- Pabilioiak altuera diferentetan daudenez, barrutik mugitzea zaila da, eta igogailuak eta segurtasuneko eskailerak erabili behar dira.
- 7. eta 8. pabilioiak besteetatik aparte daudenez, barrutia bi gunetan banatuta dago.
- Dagoen eskaerarekiko saio nagusietarako erakusketa-azalera txikiegia da; horrenbestez, stand-en azalerak eta eskaerak mozteko beharra ematen da.

*La Feria Internacional de Bilbao (FIB), constituida en 1932, es hasta la fecha, el único recinto ferial de Euskadi. Dispone de una superficie total de 130.000 m2, de los cuales 90.000 m2 son expositivos y están distribuidos en 8 pabellones, que se fueron construyendo de forma escalonada entre 1958 y 1990, según las necesidades de la demanda.*

*La FIB constituye el cuarto recinto ferial más importante del Estado tras Madrid, Barcelona y Valencia, y es la única institución ferial del Estado homologada con la Norma ISO 9001 desde 1998 para todas sus actividades:*

- *diseño y organización de certámenes*
- *organización de congresos y eventos*
- *alquiler de recintos*
- *prestación de servicios integrales para participación en congresos*

*Ahora bien, su actual ubicación presenta algunos inconvenientes entre los que cabe destacar:*

- *Pabellones a distinta altura que complica la movilidad y circulación interiores y obliga al uso de ascensores y salvaescaleras.*
- *Recinto dividido en dos zonas al estar los pabellones 7 y 8 desconectados del resto.*
- *Superficie expositiva insuficiente en los principales certámenes respecto a la demanda existente, lo que obliga a recorta peticiones y superficies de los stands.*

### Bilboko nazioarteko erakustazokaren ezaugarri nagusiak

### Principales características de la feria internacional de Bilbao

| | GAUR EGUNGO INSTALAZIOAK / *INSTALACIONES ACTUALES* |
|---|---|
| AZOKA-ESPARRUA / *RECINTO FERIAL* | |
| • Azalera guztira / *Superficie total* | 130.000 m2 |
| • Erakusketarako azalera / *Superficie expositiva* | 90.000 m2 |
| • Pabilioi-kopurua / *Nº pabellones* | 8 |
| • Aparkalekua / *Aparcamiento* | 1.200 plaza / *plazas* |
| • Jatetxeak / *Restaurantes* | 4 |
| • Kafetegiak / *Cafeterías* | 5 |
| • Self-service | 1 |
| • Telefono-lineak / *Líneas telefónicas* | 600 |
| KONGRESUEN ZENTROA / *CENTRO DE CONGRESOS* | |
| • Areto nagusia / *Salón de Actos* | 325 lagun, 500 arte handitzeko aukera / *325 personas ampliable a 500* |
| • Bilera-aretoak / *Salas de reuniones* | 7, 517 lagunentzako edukiera / *7 con capacidad para 517 plazas* |
| • Erakusketa- harrera gela / *Hall de exposiciones - recepción* | 2 |
| • Erakusketa-gelaren azalera / *Superficie hall de exposiciones* | 700 eta 450 m2 / *700 y 450 m2* |

Iturria / *Fuente*: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka / *Feria Internacional de Bilbao.*

*2004. urtean Ansioko Ibarrera eramateak, erakusketarako gaur egungo azalera baino %30 handiagoa izatea ekarriko du: 130.000 m2*

*El traslado a la Vega de Ansio en la primavera del 2004 permitirá disponer de una superficie neta expositiva un 30% mayor que la actual: 130.000 m2*

- Era berean, saio horietan aparkatzeko toki gutxiegi dago (1.200 ibilgailuetarako aparkalekua).
- Biltegiratzeko berezko espaziorik gabe, eta zamaketa-lanetarako baldintza eskasak; horrenbestez, lehendabiziko kasuan barrutiaren kanpoko espazio eta lokalak alokatu behar dira, eta bigarrenean bide publikoa erabiltzera behartuta daude.
- Bertako trafikoaren egoerak baldintzatutako sarrera (auto-ilarak).

Epe laburrera arazo horiek larritu egingo dira, aurreikusitako Bilboko sarrera berriek eragin negatiboan izango dutelako barrutiaren azalera erabilgarrian, eta gaur egungo banaketa oraindik handiagoa egingo dutelako. Egoera horiek kontuan hartuta eta hirien arteko lehia gogorrak eragindako esparruan, batez ere saio erraldoiak erakartzeko garaian, Bilbok azoka-barrutia Ansioko Ibarrera (Barakaldo) eramateko lehen pausoak eman zituen. Obrak 2003ko abenduan amaituko direla aurreikusi da, eta inaugurazioa Makina Erremintaren bi urtez behingo erakusketarekin 2004ko udaberrian egiteko asmoa dute.

- *Igualmente, insuficiente capacidad del aparcamiento (1.200 plazas) en esos mismos certámenes.*
- *Sin espacios propios para almacenamiento y condiciones precarias para las operaciones de carga y descarga que obliga a recurrir en el primer caso al alquiler de espacios y locales fuera del recinto y al uso de la vía pública, en el segundo.*
- *El acceso condicionado a la situación del tráfico local (atascos).*

*A corto plazo estos inconvenientes se agravarán ya que los nuevos accesos previstos a Bilbao repercutirán negativamente en la superficie disponible del recinto y agudizará aún más la división actual. Teniendo en cuenta estas circunstancias y en un marco caracterizado por la elevada competencia entre ciudades, sobre todo para captar grandes certámenes, Bilbao inició los pasos para el traslado del recinto ferial a la Vega de Ansio (Barakaldo). La finalización de las obras se prevé para Diciembre del 2003 y su inauguración en la primavera del 2004 con la Bienal de la Máquina Herramienta.*

### BNE-REN instalazio berrien ezaugarri nagusiak

### Principales características de las nuevas instalaciones de la FIB

| BNEren instalazio berrien ezaugarri nagusiak | *Principales características de las nuevas instalaciones de la FIB* |
|---|---|
| • Erakusketarako azalera: 117.000 m2 (Δ %30 gaur egungoarekiko) | • *Superficie Expositiva: 117.000 m2 (Δ 30% respecto a la actual).* |
| • 7 pabilioi, ondoren adieraziko dugun moduan banatut | • *7 pabellones distribuidos de la siguiente manera:* |
| • 15.625 m2-ko 4 | • *4 de 15.625 m2* |
| • 3.600 m2-ko erabilpen anitzeko | • *1 multiusos de 3.600 m2* |
| • 3.600 m2-ko vip gela 1 | • *1 vip de 3.600 m2* |
| • Kirol, musika eta kultur ekitaldietarako 27.000 m2-ko hondarrezko pabilioi 1. | • *1 pabellón de arena de 27.000 m2 para eventos deportivos, musicales y culturales.* |
| • Harrera-eraikina (31.750 m2) eta Kongresuetarako zentroa (18.000 m2) | • *Edificio de acogida (31.750 m2) con Centro de Congresos (18.000 m2)* |
| • Zamalanak egiteko kaleak: 61.170 m2 | • *Calles de carga y descarga: 61.170 m2* |
| • 20.000 m2-ko kale nagusia | • *Calle central de 20.000 m2* |
| • Berdeguneak eta gune zolatuak: 100.000 m2 | • *Zonas verdes y pavimentadas: 100.000 m2* |
| • 4.000 plazatarako aparkalekua (lurpekoa) | • *Aparcamiento para 4.000 plazas (subterráneo)* |

Iturria / *Fuente*: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka / *Feria Internacional de Bilbao.*

**FIB-BNEk antolatutako saioak. 1997-2000**

**Certámenes organizados por FIB-BNE. 1997-2000**

| | Oinarrizko magnitudeak / *Magnitudes básicas* | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 |
|---|---|---|---|---|---|
| Erakusketari zuzenak / *Expositores directos* | 2.407 | 1.694 | 2.800 | 2.195 | 3.113 |
| Azalera garbia / *Superficie neta* | 129.215 | 69.551 | 142.191 | 81.792 | 157.906 |
| Bisitari profesionalak / *Visitantes profesionales* | 81.368 | 50.961 | 90.246 | 44.391 | 88.869 |
| Saio-kopurua / *Nº certámenes* | 20 | 22 | 19 | 24 | 19 |
| Saio bakoitzeko erakusketariak / *Expositores por certamen* | 120 | 77 | 147 | 91 | 164 |

Iturria / *Fuente*: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte / *Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

## BNEren jarduera

## La actividad de la FIB

*Urte bikoitietan berezko 20 saioren antolaketak eta urte bakoitietan 23ren antolaketak erakusten dute BNEren jarduera-maila.*

*20 certámenes propios organizados los años pares y 23 los años impares marcan el nivel de actividad de la FIB.*

Saioen kopurua aldakorra da urte bikoitia edo bakoitiaren arabera; horrenbestez BNEren jarduera orokorra bi urte kontuan hartuta aztertu behar da.

99/2000 biurtekoan BNEk 43 saio antolatu zituen eta 42 2000/2001 urteak kontuan hartzen badira. Urte bikoitietan kopurua 19-20 saiotan mantentzen da eta bakoitietan 23-24tan.

Hala ere, azoka-barruti bateko jarduera-maila, batez ere ondoko hiru adierazle hauen arabera neurtzen da:

- Erakusketari zuzenen kopurua
- Erakusketa-azalerako m$^2$ garbiak, eta
- Bisitari profesionalen kopurua

1992-2000 urte bikoitien tartean, BNEk eboluzio positiboa izan du hiru adierazleetan, ondoren zehaztuko dugun bezala:

- Erakusketari zuzenen %40ko gehikuntza; 2000. urtean 3.113ra heldu ziren.
- Saio bakoitzeko erakusketarien ratioa 117tik 164ra pasatu zen.
- Erakusketarako azaleraren m$^2$ garbien %17ko gehikuntza, 1996az geroztik gehikuntzarako joera eman dela kontuan hartu behar bada ere. 2000. urtean 158.000 m$^2$-ra heldu zen.
- 1992. eta 2000. urteen artean bisitari profesionalek %1,4 egin zuten behera, 1998an, kontuan hartutako denboran puntu gorenera heldu bazen ere: 90.246 bisitari.

*El número de certámenes varía según año par o impar por lo que la actividad global de la FIB debe considerarse desde una perspectiva bianual.*

*En el bienio 99/2000 la FIB organizó un total de 43 certámenes y 42 si se consideran los años 2000/2001. Los años pares el número se mantiene en torno a los 19-20 certámenes y los impares, entre 23-24.*

*Ahora bien, el nivel de actividad de un recinto ferial se mide sobre todo por los siguientes tres indicadores:*

- *El número de expositores directos*
- *Los m$^2$ netos de superficie expositiva, y*
- *El número de visitantes profesionales*

*En el período de los años pares 1992-2000, la FIB ha experimentado una evolución positiva en los tres indicadores, que se concreta así:*

- *Incremento del 40% de los expositores directos; en 2000 alcanzaron la cifra de 3.113*
- *El ratio de expositores por certamen ha pasado de 117 a 164*
- *Incremento del 17% en los m$^2$ netos de superficie expositiva, aunque la progresión mantiene constante su tendencia al alza desde 1996. En el año 2000 se acerca a los 158.000 m$^2$.*
- *Leve decrecimiento de un 1,4% de los visitantes profesionales entre 1992 y 2000, aunque en 1998 se obtuvo el máximo de la serie temporal considerada: 90.246 visitantes.*

BNEk antolatutako saio-kopurua. 1992-2000
Número de certámenes organizados por la FIB. 1992-2000




Iturria / *Fuente*: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte / *Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

**Erakusketari-kopuru, m2 garbi eta bisitari profesionalen arabera saio garrantzitsuenak, urte-mota kontuan hartuta**

**Certámenes más importantes por nº de expositores, m2 netos y visitantes profesionales según tipo de año**

| Saioa/ *Certamen* | Erakusketari-kop. / *Nº expositores* | | M2 garbiak / *M2 netos* | | Bisitari profesionalak / *Profesionales* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urte bikoitiak / *Años pares* | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 | 1998 | 2000 |
| • Ferroforma | 755 | 826 | 36.718 | 40.133 | 21.249 | 17.306 |
| • BIEMH | 593 | 629 | 36.774 | 40.707 | 35.910 | 38.087 |
| • Expovacaciones | 323 | 474 | 8.823 | 10.405 | -- | 946 |
| • Cintex | -- | 131 | -- | 4.553 | -- | 7.577 |
| • Euromotor | 50 | 39 | -- | | 7.153 | 8.795 |
| Urte bakoitiak / *Años impares* | 1997 | 1999 | 1997 | 1999 | 1997 | 1999 |
| • Expovacaciones | 166 | 477 | 8.588 | 10.402 | -- | 746 |
| • Azpikontratazioa | 282 | 332 | 5.147 | 5.626 | 5.281 | 8.583 |
| • Euroalimentación | 167* | 202 | 4.709* | 3.896 | 19.974 | 13.358 |
| • Proma | 219 | 201 | 7.727 | 6.846 | 5.506 | 5.969 |
| • Cita | 172 | 96 | -- | 2.901 | 7.566 | 4.372 |
| • Soldadura | 31 | 59 | 1.600 | 4.371 | 2.002 | 3.741 |

* Eurohosteleriarekin / Con Eurohostelería

Iturria / *Fuente*: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena. Hainbat urte / *Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades y Memoria. Varios* años.

*Zabaltzen ari den azoka-jarduera; 1992-2000 (urte bikoitiak) urteen artean erakusketari zuzenen kopurua %40 eta erakusketarako azalera garbia %17 handitu ziren. Bertaratutako bisitari-kopuru handiena 1998an: 90.246*

*Actividad ferial en expansión con incrementos del 40% de los expositores directos entre 1992-2000 (años pares) y del 17% en la superficie neta expositiva. Máxima afluencia de visitantes en 1998: 90.246.*

Urte bikoitietan, bi saio nabarmenduko genituzke, euren garrantzia kontuan hartuta: Bi urtez behingo Makina Erreminta Espainiarra (BIEMH) martxoan, eta Burdindegiko Nazioarteko Azoka (Ferroforma) urrian. Bi hauek BNEren irudi eta erreferentzi izatera heldu dira, eurek bakarrik azoka-barrutiaren neurriak eta premiak justifikatzen baitituzte.

Ferroforma, Koloniakoaren ondoren, Europako Burdindegiko bigarren azoka da, mundu-mailan aipatutako Kolonia eta Chicagokoaren ondoren hirugarren postuan kokatuz. Bestalde, BIEMH Europako bosgarren azoka garrantzitsuena den bitartean, Bilbora bisitari gehien ekartzen ditu.

Bi azoka hauek Estatu-mailan duten garrantzia hain handia da, Madril, Bartzelona eta Valentziaren ondoren, BNE laugarren azoka nagusia dela; eta bere espezializazioa kontuan hartzen badugu (industriala, taldeko ondasunak, burdingintza, eta abar), garrantzitsuena da.

2000. urtean bi azoken artean, urte osoko erakusketarien %50 bildu zituzten, erakusketako azalera garbiaren %51 eta bisitari profesionalen %62.

*En los años pares destacan por su importancia dos certámenes: la Bienal Española de la Máquina-Herramienta (BIEMH) -que se celebra en marzo- y la Feria Internacional de la Ferretería (Ferroforma) de octubre, hasta el punto de que constituyen la imagen y referencia de la FIB, y justifican por sí solos el dimensionamiento y las necesidades del recinto ferial.*

*Ferroforma es la segunda feria de ferretería de Europa tras la de Colonia, mientras que a nivel mundial ocupa el tercer lugar tras la mencionada de Colonia y Chicago. Por su parte, la BIEMH es la quinta feria más importante de Europa, pero para Bilbao es la que atrae mayor número de visitantes.*

*La importancia de estas dos ferias en el conjunto del Estado es tal que, si la FIB se considera la cuarta feria más importante tras Madrid, Barcelona y Valencia, atendiendo a su especialización (industrial, bienes de equipo, siderurgia, etc.), se considera la más importante.*

*En el año 2000 ambas ferias concentraron el 50% del número total de expositores del año, el 51% de la superficie neta expositiva y el 62% de los visitantes profesionales.*



*Bi urtez behingo Makina Erreminta Espainiarrak (BIEMH) eta Ferroforma-k osatzen dute BNEren saio garrantzitsuenak, erakusketari-kopuruari, zein erakusketarako azalera garbia eta bisitari profesionalei dagokienean.*

*La Bienal Española de Máquina Herramienta (BIEMH) y Ferroforma constituyen los certámenes más importantes de la FIB tanto por la presencia de expositores, como por la superficie neta expositiva y los visitantes profesionales.*

Erakusketari zuzenak. 1992-2000
Expositores directos. 1992-2000




**Iturria / *Fuente***: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte
*Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

Erakusketarien ratioa, saio bakoitzeko. 1992-2000
Ratio de expositores por certamen. 1992-2000




**Iturria / *Fuente***: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte
*Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

Azalera garbia. 1992-2000
Superficie neta. 1992-2000




**Iturria / *Fuente***: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte / *Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

Bisitari profesionalak. 1992-2000
Visitantes profesionales. 1992-2000




**Iturria / *Fuente***: Bilboko Nazioarteko Erakustazoka. Jardueren txostena, hainbat urte / *Feria Internacional de Bilbao. Informe de actividades, varios años.*

Kopuru absolutuetan, BIEMH azokak (otsaila) 38.087 profesional hartu, 40.707 m2-ko azalera erabili eta 629 erakusketari bertaratu ziren. Bestalde, Ferroforma azokak (urria) 17.306 bisitari profesional, 826 erakusketari izan zituen eta 40.133 m2 erabili zituen.

Urte bakoitietan BNEk jarduera-maila baxuagoa du, eta 1993-1999 tartean, kontuan hartutako adierazleen eboluzioa desberdina izan du. Ondoko datu hauen bidez ikus daiteke hori:

- 1999an 2.195 erakusketari zuzenei esker %35eko gehikuntza eman zen.
- Saio bakoitzeko erakusketarien ratioa 74tik 91ra pasatu zen.
- 1993arekin (denbora-zati horretako altuena) alderatuz 1995ean erakusketarako azalera garbia asko murriztu ondoren, 1995-1999 tartean %45 hazi zen, 81.792 m2-ra heldu arte.
- Bisitari profesionalen kopuruan gorabeherak, denbora-zati horretako kopuru altuena 1993an eman zen eta baxuena 1999an (44.391).

Urte bakoitietan erakusketari-kopurua eta erakusketarako azalera garbia kontuan hartuta, Expovacaciones da bertan egiten den ekitaldi garrantzitsuena; bisitari profesionalen kopuruari begiratuz gero berriz, Euroalimentación.

Udazkeneko (urria/azaroa), eta neguaren eta udaberriaren amaierako (otsaila/martxoa/apirila/maiatza) hilabetetan biltzen dira azoka-barrutiaren ekitaldi gehienak.

